

Done Tomas Antzoki nausiyán.

DONOSTIKO Antzoki nausiyán aurten ere jai aldi chit onak eta atsegintsuak egin dira Toribio Alzaga jaunaren zuzendepean, aurkesturik biziro egoki, ondoren aipatuko ditutan euskal gai, gain gañeko batzuek, ta ezeren kezka gabe esan nezake, euskal zaleak egon giñala pozaren mende, mutiko ñaka zale bat jai egun batean soñeko berriya jazten dubenian bezela.

Uste ez genduená gertatu arren chistulariyen ez etortzeakin, alaz guztiyaz ere, utsun ori bete zuben chit ongi Donostiyako Euskal-itz-jostaldien Batzarrak, izkribatzalleen arteko gai neurketakiñ eta iru egin-tzetan egin, edo antolatutako *Garbiñe* izentzat daramakiyen abalizketa bikañarekin.

Lendik esana daukaguna baño geyago ¿zer esan bear degu *Garbiñe*-gatik? Arratsaldeko bostetan ekin ziyotela beren eginkisunari Arrieta, Aranburu, Olaso, Ariztegieta andere, ta Beorlegi, Echeberria, Egilegor, Lasa, Arozamena, Arizmendi ta Torregarai galai gazteak, osaturik yoyotasun aundiz, Alzaga maisuak oen mende ipiñi zituen gai guztiyak ta jakiña dago chalo aundipean bukatu zutela arratsaldeko ekiñ aldiya.

Gai ontaz gañera eman bear det zerbait berri nere irakurle guztiyak jakitera irichi ditezen, nortzuk izan diran aurten Erri-batzar eta Donostiyako Euskal-itz-jostaldien Batzarran aldetik sarituak. Oek ere chalo batzuen jabe dirala uste det egin dituzten lanakgatik, bai, ta neriak izan bitzate, gaurkuak beintzat, Katalina Elizegi andere, Euskal zabalzalle bikañak, bere *Loreti-gatik*, Bitor Garitaonandia jaunak *Iziarcho*-gatik, Jose Elizondo'k *Omena-gatik*, Arrieta, Aranburu, Olaso, Ariztegieta ta Aramendi andereak *Rochill'en sakelchoa-gatik*; bai ta ere izan bitzate nere zorientzak Jose Inazio Garmendia, Loyola Ibarreko maisu

jakintsuak, Albistur'ko Emiliano ta Juan Mujika'k egin dituzten lan egokiyak-gatik.

Bertsolariyen arteko jardun aldiyak ez nau aurten batere bete. ¡Zer egingo da! Egun guztiyak ez ditu izaten gizonak aldarte onekuak. Bi guchicho dira elkar berotzeko.

*
* * *

Orañ ¿zertara nua? Orañ arratseko bederatzietatik aurrerako ekiñ aldiyaren berri eman bear det baldiñ altzaidu muñur onek ukatzen ez badit, arrabetariyen soñu jotze ondorengo gai aurkestatza nolakoa izan zanesanaz.

Pachi Aroztegi'ren baratzako *Arantza* landare zulakaya bada ere, mutur bigunduna izan bear zuben noski, zergatik Aramendi, Aranburu, Ariztegieta andere, ta Echeberria, Lasa, Torregerai'k algarapean ler eztanda egiñik iduki zuten, oen ekintzak ikustera joan zan ikusdari guztiya.

¿Uste aldu iñork bear bezelako arantza izan bazan, farrik eragingo zuenik? Ez chinistu Pachi; arantzak miñ eman oi du aragitan sartzen danean, bañan *Pirlinpinpin* farrezkua izan da arraye polatu.

¿Ta noratu dala uste dezute biziyak iraun ziyon bitartean euskargatik lan egitez azpertu etzan Kayetano S. Irure? *Azken beltza* da galde onen erantzueraren jabe dana; onek edo sega beltzak, ebakiyak dira noski gizagajo aren bizi ariyak. *Azken beltza*. ¡Au da, au! luma muturrari Kaitano'k esan arazi ziyon azkeneko itza.

¡A Kaitano, Kaitano! I izan aizen bezelakuak balira Euskal-erriyan berrogei bat euskaldun, ez likek euskarak kalte aundirik izango; nik ez diat uste beintzat.

Ta ikusi izan balitu Kaitano zanak Olaso, Aranburu, Arrieta andere, Beorlegi, Egilegor ta Arozamena, zenbateraño ko yayotasunakin jardun ziran iruditegian, *Azken beltza'ren* gai onak erakusten, zer esan etzekiyela geldituko zan gizagajua, bañan nere ustez Alzaga maisuak esango ziyon ezeren kezkarik gabe: zuria da Kaitano, zuria, *Azken beltza*, ta ikusdariyen chaluak zuretzat eta nere ikasdarientzat. Bañan ¿nereztat? Gaurdaño ko ekintza guztiyak ondo atera zaizkitalako poza.

Rochill, Rochill
Rochill'en maleta,
kontrabanduaren, kontrabanduaren
billa gabiltza.

Bai; Rochill'en sakelchoko amabost milla pezetan billa. Ez-itukek gaizki etorriko gaur, gaur bezela, Arozamena. ¿Ta guri noiz etorriko litzaizkigukek gaizki? Ikatza garizti izan arren ere, Errenteriko Mañeonian ikatz ordaña topatuko ginikek, ala jainkuak zalba nazala.

Bost neskacha gaztek antolatu omenditek Rochill'en sakelchoa ¿e? Oso andere pollitak omen dituk; eta nere iritziz, egoki egina zeok oyek moldatu duten egintza; ta zer yayotasunezko lana egin zenuten edorri aizenak, Agoton'en antza idurikaiturik, Arrieta, Olaso andere, Egilegor, Beorlegi, Mujika, Torregerai, Lasa ta Arizmendi galai gazteak; oraindik ere chaloka eziñ azpurturik niok, zuek Done Tomas eguneko gabean egin zenituzten lanak ikusiyaz gaiñ, ta uste diat, nere giza ar-kiko dirala, ni bezela gau artan antzokiratu ziran ikusdari guztiyak, eta.....

Rochill, Rochill,
Rochill'en sakela
galdu, galdu,
galdu ez-akela.

JUAN INAZIO URANGA

